

Trukeko ikasleei laguntza emateko Buddy programa

Sarrera

Programa hau eskolaren beraren ekimena da. Nazioarteko bisitariari (Erasmus, Beste Norakoak, Latinoamerika, Europako Modulua) gure eskolan eta kulturaren integrazioa laguntzea du helburu.

Gasteizko Erizaintzako Unibertsitate Eskolako (EHU) ikasleak izango dira *buddy*ak, beren esperientzia, ekimen pertsonal edo laguntasunak bultzatuta, iritsi berriei osasun-sisteman, harrera-gizartean, hirian eta campusean orientatzen lagunduko diete, borondatez.

Ekimen honen bidez, etorkizunean trukea egin nahi duten ikasleek, eurek joan nahi luketen unibertsitateko ikasleren bat ezagutzeko aukera daukate, eta hori lagungarria izan ahal zaie etorkizuneko egonaldirako. Era berean, aukera izango dute norako unibertsitateko hizkuntza lantzeko eta hango kultura eta bizimoduaz zerbait ikasteko.

Buddy programan parte hartzeak **puntuak ematen ditu, geroago mugikortasun programetan plaza eskatzeko eta modu berean hautazko kredituak lortzeko baita ere.**

¿Ze nolako eginkizunak ditu Buddy-ak?

- **Atzerriko ikaslearekin jarriko da harremanetan, posta elektronikoaren bidez,** hona etorri aurretik, Vitoria-Gasteizko Erizaintza Unibertsitate Eskolan izango duen "BUDDY" a izango dela adieraziz.
- **Hitzordua egingo du atzerriko ikaslearekin iritsi bezain pronto** (autobus geltokian, hiriko tokiren batean edo campusean) lekartzakeen galderak erantzuteko eta **Gasteizen egin beharreko lehendabiziko egunetan laguntzeko,** ahal bada hiria erakutsiko diolarik.
- Erizaintza eskolara eraman **koordinatzailea aurkezteko.** (Jagoba Zarandona)



- **Erizaintza-eskola erakustea.**
- Beharrezkoa izanez gero, praktikak egiteko lekura, ospitalera, osasun-zentrora eta abar laguntzea.

Taula honetan ikus ditzakezu *buddy*en ohiko zereginei dagozkien orduak:

Egindakoa	Baliokidetasuna (orduetan)
Programari buruzko xehetasunak jaso; Nazioarteko Harremanetako bulegoan egindako elkarrizketa; izena emateko prozedurak betetzea	2
Programak antolaturiko bileretan parte hartzea	4
Bisitatzailarekin harremanetan jartzea, bidaiaria baino lehen	5
Iristen den egunean, autobusa edo tren geltokian bisitatzailarekin elkartzea, hiriari buruzko lehen informazioak emateko	5
Harrera Bulego/Help Centrerrera bisita, ostalua-Hizkuntza ikastaroak-eta beste informazioak jasotzeko	5
Alokairuan dauden logelak, pisuak edota erresidentziak bisitat egiterakoan laguntzeko	10
Fakultate edo Eskolako nazioarteko koordinatzailearengana bisita	4
Campuseko bisita gidatuetan parte hartzea	10
Ekitaldiak antolatzea, bai bisitatzailentzat bai hemengo ikasleentzat (txangoa, afaria, irteera...)	15
Buddy programari loturizko hainbat ekimen (elkarrizketak; blogak; sare sozialetako taldeak; campuseko ongietorri ekitaldiak)	

Zein da hautazko kredituak lortu ahal izateko jarraitu beharreko prozedura?

Bisitari bati laguntzeko zereginak, gutxi gorabehera, kreditu bat osatzen dute.

Gogoratu **hiru kreditu lor ditzakezula gehienez Buddy programan parte hartuz.**

1. *Zure bisitariak egiaztatuko ditu zuk egindako laguntza-zereginak*; horretarako, inkesta bat beteko du bere egonaldia amaitu aurretik. Inkesta hau, koordinatzaileak eskeiniko dio.
2. Programa zabaltzeko eta/edo sustatzeko, Idazkari Akademikoak (Alaitz Yoldi) bertaratze-ziurtagiri bat egingo du, eta zeregin horretan emandako orduak ezarriko ditu.
3. Orduen kontaketa egindakoan, Idazkari Akademikoak sinatutako egiaztigiri ofizial bat tramitatuko da, eta Buddy programan parte hartzeagatik zenbat kreditu lortu dituzun jarriko du han.



4. Zure *buddy* lana amaitutakoan (egokitu zaizun ikaslea joaten denean), azken dokumentu hori aurkeztu behar duzu Gasteizko Erizaintzako Unibertsitate Eskolako idazkaritzan, (Eva Lopez-i) zure kredituak amortizatzeko.

Nola egin behar da *buddy* izateko eskaera?

[Eskaera-orria](#) bete orain. Hautaketa iraila eta maiatza hilabetetan egingo da.

Zein irizpide hartuko dira kontuan *buddy* ikasleak hautatzeko?

1. Lehentasuna izango dute mugikortasun-programetan parte hartzeko interesa duten ikasleek.
2. Lehentasuna izango du kurtso goreneko ikasleak.
3. Ingelesaren ezagutza-maila.
4. Libre egotea ikasle bisitaria hemen dagoen bitartean.
5. Lehentasuna izango du aurreko urtean eskaer-orria beteta duen ikasleak.
6. Ikasketa-espedientea.

Informazio gehiago behar izanez gero...

- Jarri harremanetan Gasteizko Erizaintza Eskolako idazkaritza akademikoarekin eta Buddy programaren arduradunarekin. Horretarako, erabili helbide hau: alaitz_yoldi002@ehu.eus
- Edo jarri harremanetan Jagoba Zarandonarekin dozente eta mugikortasun-programen koordinatzailearekin. Haren helbidea: jagoba_zarandona@ehu.eus